

Mondragon Unibertsitateak 500 gazte bildu ditu Ficoban ekintzailtza sustatzeko

2009/05/05

2009ko apirilaren 30ean, Irunen, egun osoan zehar batxilergoko bigarren ikasturteko 500 gazte inguru bildu zituen Mondragon Unibertsitateak Ficoban antolatu zen ekitaldi handi batean, ekintzailtza gazteen artean sustatzeko eta beren proiektuak abian jarriz beren etorkizuna lantzen erakusteko helburuarekin. 'Ametsen ekaitza' edo 'Ametsak egi bihurtzen dira' izenarekin bataiatu da ekimena, eta jarrera proaktibo jakin batzuk sustatuz gero norbere proiektua egi bihurtzea edo norbere enpresa sortzea posible dela erakutsi nahi zitaien gazteenei. Azken finean, gazteak beren etorkizunaren inguruan gogoeta egitera animatu nahi zituen topaketa interaktibo horrek.

Horretarako berrikuntzaren eta ekintzailtza gaian nazioarteko aditurik handienaren esperientzia izan genuen, 'Team Academyrena'. Hori Jyväskyläko Zientzia Aplikatuaren Unibertsitateko ekintzailtza unitate berezia da, eta ekintzailtza sustatzeko metodologia konkretu batzuk erabiltzen ditu: taldeko lana eta eginez ikastea.

Hain zuzen, 'Team Academy' metodologia ezaguna erabiliz ezaugarri horietako ekitaldiak antolatzen dituen Espainiako unibertsitate bakarra da Mondragon Unibertsitatea. Ekitaldia Bidasoa Aktivak Irungo Ficoban antolaturiko Ekintzailtza eta Berrikuntza Azoka barruan egin zen. Ekitaldi horrek arrakasta handia izan du Finlandian, eta dagoeneko bederatzigarren edizioa egingo dute bertan.

'Talk show' izenekoak izango ziren jardunaldian. Horietan ekintzaileek, besteak beste, Andoni Zubizarretak eta Antxon Arza-k, beren enpresa-ametsa nola bihurtu zuten egi eta amesturiko enpresa-proiektuari nola eman zioten forma azaldu zieten 500 ikasleri. Epsilon Euskadiko ordezkariak eta Innobasqueko zuzendariak ere parte hartu zuten ekitaldi horretan, eta euskal ekintzaileen komunitateak buruturiko lana azaldu zitzaizkien gazteei. Komunitate hori ekintzailtza inguruan sentibilizaturiko pertsonen osaturiko gizarte-sarea da.

Jardunaldian nabarmendu ziren ideia batzuk honako hauek dira: gazteengan ekiteko grina eta ilusioa suspertzea, haien bizitzan jarrera aktibo eta sortzailea hartzea eta nork bere etorkizuna ekintzailtza-proiektuen bidez landu dezakeela ohartzea. Helburua, beraz, gazteen artean ekintzaile-espirtua sustatzea izan zen, hau da, ekintzailtza inguruko kultura bat, ekintzaile gehiago sor daitezen eta, horrela, herrialdeetan enplegu eta aberastasun gehiago ekarriko dituzten enpresa gehiago sor daitezen. Ekimenak "eginez ikasteko" kontzeptua sustraitu zuen ikasleengan, haien jarrera proaktiboa indartzeko tresnak eman zizkien eta ikaskuntzan eta lan-munduan lantaldeen zereginari buruzko gakoak eskaini zituen. Hori guztia helburu bakar batekin: gazteei jakinaraztea nork bere etorkizuna lantzen duela. Horretarako, 'Ametsen ekaitzak' Finlandiako "Team Academyren" metodologian oinarritutako talde-lanaren eta talde-ikaskuntzaren inguruko esperientziak eskaini zizkien ikasleei. Halaber, Team Academyk garatutako ekimen batzuen berri eman zien.

Ekitaldia bereziki interesgarria izan zen ohiko ikaskuntzaren bidez ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzat, "eginez ikasteko" metodoaren bidez aukera ezin hobea izan zuten eta.

Ekitaldiaren jatorrizko ideia Finlandian sortu zen, Aivomyrsky-n hain zuzen. Han, horrelako ekitaldi bat antolatu ohi da urtero eta aurtengoa zortzigarren edizioa izango da. Mondragon Unibertsitateak ere antzeko helburua du: gazteak ekintzailtza inguruan elkartzeko, ekintzaileen bizipenak eta iritziak entzun ditzaten eta beren etorkizuna landu dezaketela jakin dezaten. Finlandiako 'Team Academy' deritzona Jyväskylä-ko Zientzia Aplikatuaren Unibertsitateko ekintzailtza-unitate



berezia da. Johannes Partanenek sortu zuen, 1993an. "Team Academy" talde-ikaskuntzara bideratuta dago eta, horren bidez, enpresa-munduan derrigorrezkoak diren gaitasunak garatzen ditu, batik batik ekintzailezarekin zerikusia dutenak. Metodo nagusiak bi dira: talde-ikaskuntza eta eginez ikastea. Ikasleen ekintza irakurketaren eta coaching-aren bidez hartutako ezagutza teorikoan oinarritzen da, eta pedagogia horrek ohiko ikaskuntzaren goitik beherako aldaketa dakar. 'Team Academy' metodologia hainbat eremutan aplikatu da. Hala, ekintzaile-jarrera bultzatu izan du Finlandiako hezkuntzako zenbait mailatan, haurtzaindegian hasi eta unibertsitateeraino. Orobat, haren metodoak era guztietako erakundeetan aplikatu dira, hala nola Finlandiako enpresa txiki eta ertain, multinazional, elkarte eta erakundeetan. 'Team Academyren' metodologia eta ideologia Europako herrialde batzuetara ere hedatu da, esaterako Erresuma Batua, Frantziara, Holandara, Alemaniara, Esloveniara, etab. Euskal Autonomia Elkartearen, metodologia eskaintzeko arduradunak 'Team Academy Euskadi' (Labein-Tecnalia) eta Mondragon Unibertsitatea dira.

<http://www.ametsenekaitza.com>